

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELCIEGOKO UDALA

Errioxa jatorrizko deitura kalifikatuko ardoa egin, bildu eta ontzeko upeltegirako jarduera espediente, Uribe Varela SCk sustatua

Jendaurrean jartzen da ondoren aipatzen den jarduerari baimena emateko espediente, Uribe Varela SCk eskatuta, Errioxa jatorrizko deitura kalifikatuko ardoa egin, bildu eta ontzeko upeltegirako jarduera egin nahi baitu Elciego udalerrian (Araba), Barrihuelo kaleko 34 zenbakian, 2 poligonoko 441 lurzatian; Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko Legeak (3/1998 Legea, otsailaren 27koa) 58. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan xedatutako ondorioetarako jartzen da espediente hori jendaurrean (lege hori aldatu egin zen apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bitartez, zeinak hainbat lege egokitzen baititu barne merkatuko zerbitzuei buruzko abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentarauaren arabera).

Beraz, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, ediktu hau argitaratu ondoko egunetik aurrera, jarduera hori ezartzeak nolabaiteko kaltea sortzen diola irizten dionak egoki jotzen dituen alegazioak formulatu ahal izan ditzan, alkateari zuzendutako idazkia udal honen erregistroan aurkeztuta.

Aipatutako espediente udal honetako idazkaritzan kontsulta daiteke.

Elciego, 2016ko uztailaren 28a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE